


9. PIEZA.

▣ KOSTU EGITURAK

Gure proiektua aurrera ateratzeak gastu batzuk dakartza berekin, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du. Negozioaren kostuak kostu finkoetan eta kostu aldakorretan sailkatu ditugu.



➤ KOSTU FINKOAK

Kostu finkoak dira denbora-tarte batez konstante irauten dutenak, eta ekoizpenaren eskaeraren aldakuntza alde batera uzten dutenak.

- Hurrengoak dira gure enpresaren kostu finkoak:
 - ❖ Establezimenduaren alokairua
 - ❖ Ura (zati finkoa)
 - ❖ Argia (zati finkoa)
 - ❖ Gasa (zati finkoa)
 - ❖ Internet zerbitzua (Wifi)
 - ❖ Soldatak (edozein enpresaren kosturik garestienak)
 - ❖ Publizitatea
 - ❖ Web orria mantentzea
 - ❖ Altzariak
 - ❖ Kapital fisikoa
 - ❖ Lokalaren aseguruua

➤ KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak honako hauen arabera aldatzen dira: ekoizpena edo salmentak.

- Enpresak dituen kostu aldakorrak:
 - ❖ Ura (kontsumoa)
 - ❖ Argia (kontsumoa)
 - ❖ Gasa (kontsumoa)
 - ❖ Materialak erosteko enpresari ordaintzekoa
 - ❖ Espezializatuek emandako hitzaldien arabera, haiei, hau da, langileei ordaindu beharreko soldata.

Gure hasierako inbertsioa 10.000 eurokoa izan denez, 7.000 euro inguru gastatuko ditugu finkoen eta erreformen bitartez; eta beste 3.000 euroak publizitatean, web-orrian, komunikazio- eta banaketa kanaletan eta kostu aldakorretan.

Diru gehiago beharko balitz (seguroenik) mailegu bat eskatuko zaio finantza-erakunderen bati gastu horiek estaltzeko.

Kostu aldakorren barruan, enpresak zer zerga ezarri behar diren ere finka dezakegu, bai ludoteka martxan jartzeko, bai irekitzeko.